

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mugerre

Aurkibidea

Udalerria: Mugerre

Sarrera



Mugerre Lapurdiko udalerria da, Lapurdi Beherean kokaturikoa. Herri hauekin egiten du muga: iparraldean Lehuntze; ipar-ekialdean Urketa ipar-ekialdean; ekialdean Beskoitze; Hazparne hego-ekialdean; Jatsu hegoaldean; Hiriburu eta Milafranga mendebaldean; eta, Baiona ipar-mendebaldean. 1813ko abenduaren 9an, Mugerreko muinoak Soult mariskalaren eta Wellington dukearen arteko borroken eszenatokia izan zen, gerra napoleonikoen barruan. 1946ko abenduaren 21ean Radio Euskadi bertatik emititzen hasi zen.

- **Biztanleak:** 4.655
- **Euskaldunak:** %8,97

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **7**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- IKER taldea

Hizlariak

Jean Hastoy (1928-2024)



Jean Hastoy Mugerren sortu zen 1928ko uztailaren 26an. Aita sortetxekoa bertakoa zuen, ama, berriz, landibartarra. Lau haurrideren artean 'birdena' (bigarrena) izan arren, berak hartu zuen etxaldearen segida. Zerbitzu militarren denboran izan ezik -orduan Alemanian egon zen- bizi guztia Mugerren iragan zuen. Dantza eta pilota gustuko zituen, eta elkarriketa egin zitzaionean ederki oroitzen zen lehengo laborarien bizitzaz. Etxaldeetan ekoizten zutenaren parte handi bat eurek berek kontsumitzen zuten, bertze parte, berriz, Baionako merkatuan edo etxean bertan saltzen zuten.

Gabi Hiriberri Cazenave (1933)



Grabazioa egiterakoan Lehuntzen zegoen, baina Mugerren bizi izana da 38 urtez, laborantzaz. Sorterriko bizimoldeez oroitu da, etxalde ttipiak, eta belar egiteko molde bereziak, auzoekin partekatuz. Baionara ere nola joaten ziren gogoan du, eta gaur egun baino giro hobea zela garaian segur da. Bigarren Mundu Gerra ere gogoan du, nahiz eta garaian, haurra izan. Deportatua izana zen osaba baten bila izan ziren, eta nola flakatua harrapatu zuen oroitu da. Aleman soldaduekin ibilitako emazteak, ilea mozturik eta loturik, Baionan zehar ibilarazi zituztela ere badaki.

MGE-004 Hizlari ezezaguna (1944)

MGE-005 Hizlari ezezaguna (1944)

MGE-006 Hizlari ezezaguna (1944)

MGE-007 Hizlari ezezaguna (1944)

MGE-008 Hizlari ezezaguna (1944)

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com